

KANALAK

Alkohol Free-k 2 kanal izango ditu: fisikoa eta internet bidezkoa.

Bezeroekiko harremana estutzeko, lokal fisiko bat izango du. Gainera, lokal fisikoak autoa fisikoki ikustea, frogatzea eta kalitatea ikustea ahalbidetzen du. Hala ere, kanal nagusia online bidez izango da; “alkohol free” webgunearen bitartez, hor dagoen informazioa zabalagoa izango baita, interesa izanez gero begiratu ahal izateko.

Erosketak bai lokalean bertan, bai webgunean egin ahalko dira, baina produktu bat bueltatu nahi izanez gero, fisikoki soilik egin ahal izango da.

Gainera, *Alkohol Free*-ko langileen (gu, alegia) laguntzaz edozein zalantza erantzungo da, dendan aurrez aurre edota emailen bidez.

Kanalak gainera hainbat hizkuntzatan adierazita egongo dira. Kanal fisikoan euskaraz eta gaztelaniaz erantzungo da bezeroaren arreta. Internet bidez, euskaraz eta gaztelaniaz gain, informazioa frantsesez eta ingelesez ikusgai egongo da ere.

